

HEZKUNTZA ELEANIZTUNA IKERTZEN: IRAZKIA ETA BILBEA INVESTIGANDO LA EDUCACIÓN MULTILINGÜE: LA URDIMBRE Y LA TRAMA

Jasone Cenoz
UPV/EHU

Lehendakari jauna,
Errektore andrea,
Hezkuntza sailburu andrea,
Agintariok,
Klaustroko doktoreak, ikasleak
Jaun-andreok
Lankide eta lagun guztiak
Egun on eta eskerrik asko hemen egoteagatik

Bihotzez eskertzen dut Euskal Herriko Unibertsitateko errektore andre txit gorenak egin didan gonbidapena 2017-2018 ikasturtearen hasiera-ekitaldian hitz egiteko eta, bide batez, DREAM – Donostia Research on Education and Multilingualism gure ikerketa-taldean hezkuntza eleaniztunaren arloan egiten ari garena azaldu ahal izateko.

“Hezkuntza eleaniztuna ikertzen: irazkia eta bilbea”-“Investigando la educación multilingüe: la urdimbre y la trama” izenburua jarri diot irekitze-hitzaldi honi, zuekin partekatu nahi dudalako hezkuntza eleaniztuna ehuntzeko beharrezkoak ditugula:

-irazkia, hau da, ehungailuan elkarren paraleloan jartzen diren harien multzoa, eta
-bilbea, irazkiaren hariekin gurutzatuta eta lotuta ehuna osatzen duten harien multzoa.

Ez naiz, noski, ehunak ehotzeaz zentzu literalean jardungo.

Zentzu metaforikoan erabiliko ditut irazkia eta bilbea, François Jullien filosofo frantziarrak La Chaîne et la trame izeneko liburuan erabiltzen dituen modu berean, Txinako zibilizazioa testuaren zibilizazioa dela adierazteko:

“Au pays de la soie, " chaîne " et " trame " (jing et wei) sont les coordonnées du texte chinois”.

Hezkuntza eleaniztunari buruzko ikerketara itzuliz, irekitze-hitzaldi honen hasieran XXI. mendeko eleaniztasunaren zenbait ezaugarri ekarriko ditut hizpidera. Ondoren, azken 25 urteetan eskolako eleaniztasunaren arloan UPV/EHU egiten ari garen ikerketaz jardungo naiz, gaur egun egiten ari garen lan zientifikoan arreta berezia jarritz, eta, amaitzeko, etorkizuneko erronkei buruzko zenbait gogoeta labur egingo ditut.

Eleaniztasunari buruzko sarrera labur batekin ekingo diogu. Dakizuenez, hizkuntza-aniztasuna aspalditik datorren kontzeptua da. Genesian jada ageri da, eta bertan esaten da Jainkoaren haserrea eragin zuela, Babelgo dorrearen eraikuntza zela-eta. Horregatik, hizkuntza-aniztasuna nahasmenduarekin lotu izan da, dorrea eraikitzeke ezintasunarekin. Baina, pentsatzen jarrita, nahasmendua ez du eleaniztasunak sortzen, baizik eta elebakartasunak, hain zuzen ere Babelgo dorrea eraikitzen ari ziren langileei elebakar izateagatik gertatzen baitzitaien ezinezko elkarrekin komunikatzea.

Umberto Eco, *La búsqueda de la lengua perfecta* (1992) liburuan, XI. mendeko Ibn Hazm pentsalari arabiarra oinarri harturik, eleaniztasuna dohaintzat hartzen du Babelgo dorreaz hausnartzean:

“El don recibido por Adán era el multilingüismo. ... En tal caso, y una vez más, Babel no representaría la herida de la que se debe sanar, sino el don primordial que debemos reconquistar”.

Eleaniztasunak historia luzea du beraz, Behistungo inskripzioan eta Rosetta harrian ikus dezakegunez; biak idazkun eleaniztunak izaki, oso garrantzitsuak izan dira idazkera kuneiformearen eta hieroglifoan ezagutzan sakontzeko.

Denboran nahiz espazioan gertuago etorrita, ezin aipatu gabe utzi Donemiliagako glosak. Izan ere, osorik hartuta, X. mende amaierako edo XI. mende hasierako testu hirueleduna da. Kodexa latinez idatzita dago, baina glosak, hau da, ertzetan ageri diren ohar argigarriak, gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako lehenengo testuak dira.

Esan dugunez, luzea da eleaniztasunaren historia, baina azkenaldian gehiago nabarmendu da hainbat faktore direla medio, hala nola globalizazioa eta biztanleriaren mugikortasuna. Denok dakigunez, globalizazioaren ardatza munduko ekonomien eta kulturen konektagarritasuna da, eta sarritan fenomeno berrizat hartzen da. Alabaina, hainbat adituk uste dute globalizazioa oso gertakari zaharra dela.

Adibidez, 2016ko ekainaren 5ean *El País Semanal*-en argitaratutako elkarrizketa batean, Mary Beard Cambridgeko unibertsitateko Ikasketa Klasikoetan katedradunak eta Gizarte Zientzien 2016ko Asturiasko Printzesa saria irabazitakoak honako hau adierazi zuen:

“Los romanos fueron los primeros que crearon un mundo globalizado, lo que nos lleva a una pregunta clave: ¿qué significa tener comunicaciones? La idea de que hace 2.000 años se podía salir de Roma, seguir una carretera y acabar en España es totalmente revolucionaria.”.

Eleaniztasunaren testuinguruan sarritan erabiltzen den beste kontzeptu bat super-diversity edo superdibertsitatea da. Vertovec soziologoak proposatu zuen termino hau 2007an, populazioen mugikortasunak eragindako herritarren aniztasuna definitzeko, eta eleaniztasunaren ikerketan ere faktore garrantzitsutzat jotzen da.

Berria al da superdibertsitatea? Osloko unibertsitatean katedradun den Aneta Pavlenkok argudiatzen du superdibertsitatea ez dela fenomeno berria, eta, horren harira, immigrante-kopuru handien mugimenduak eragin zituzten iraganeko zenbait egoera aipatzen ditu:

“By 1910, 14.8% of the total US population was foreign-born and so were 58% of school age children in the nation’s largest cities and 72% of the kids in New York”.

Hortaz, globalizazioa eta superdibertsitatea ez dira gertakari erabat berriak eta beti egon dira eleaniztasunarekin lotuta, baina gaur egungo eleaniztasunak baditu ezaugarri espezifiko batzuk:

- Geografikoak: iraganarekin alderatuta, eleaniztasuna fenomeno globalagoa da, munduko hainbat lekutara hedatua
- Sozialak: eleaniztasuna gero eta klase sozial, lanbide eta jarduera soziokultural gehiagotara zabaltzen ari da.
- Modua: gaur egun, komunikazio eleaniztuna multimodala eta berehalakoa da, eta iraganean, berriz, mantsoa eta sarritan idatzizkora mugatua.
- Ingelesa: Gehienetan, eleaniztasuna eta ingelesa elkarrekin lotuta daude. Egun, ingeles hiztun gehienak eleaniztunak ere badira, eta haientzat ingelesa beren errepertorio linguistikoko hizkuntzetako bat da, baina ez ezinbestean beren lehen hizkuntza. Ingelesa zenbat eta gehiago izan ‘guztion’ hizkuntza, orduan eta gutxiagotan izango da ingeles hiztunen jatorrizko hizkuntza.

Vienako unibertsitatean ingeleseko katedradun den Barbara Seidlhofer-ek (2017: 394) dioten moduan, eraldaketa bat gertatzen ari da.

“from a basically monolingual view of English that regarded English as a bounded, completely separate code owned by its native speakers, ..., to the recognition of ELF as a multilingual mode, encompassing all the linguistic resources of speakers and listeners”.

Después de haber compartido con Uds algunas ideas sobre la diversidad lingüística y el multilingüismo en la antigüedad y hoy en día voy a centrarme en la investigación sobre multilingüismo en educación que

realizamos en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibersitatea.

En primer lugar voy a referirme brevemente a la línea de investigación de la influencia del bilingüismo en el aprendizaje del inglés como tercera lengua. En los estudios realizados a partir de la década de los 90 pudimos confirmar empíricamente la hipótesis de que el bilingüismo tiene un efecto positivo sobre el aprendizaje de la tercera lengua. En una época en la que la investigación sobre terceras lenguas era muy limitada pudimos probar que en nuestro contexto el alumnado bilingüe (euskara-castellano) obtenía mejores resultados que el alumnado monolingüe en varias competencias orales y escritas en inglés.


En esta tabla podemos observar como ejemplo un análisis de regresión en el que se muestra que el peso del bilingüismo es significativo habiéndose controlado el efecto de factores como la inteligencia, la edad, la motivación y la exposición a la lengua.

Table 2. *Multiple regression of intelligence, age, motivation, exposure, and bilingualism on English language acquisition*

Variable	Beta	Simple <i>r</i>	<i>r</i> ²	<i>F</i> change	<i>F</i>
Intelligence	.35				
Age	-.13				
Motivation	.38				
Exposure	.22				
Bilingualism	.20	.66	.44	43.11**	43.11
		.69	.48	16.33**	40.15

***p* < .001.

También observamos utilizando análisis de Ecuaciones Estructurales que la relación puede ser compleja porque la influencia del bilingüismo puede ser indirecta ejerciendo la motivación social un efecto mediador.



Esta línea de investigación dio lugar a publicaciones internacionales y se realizaron varias tesis doctorales analizando diferentes aspectos del efecto del bilingüismo en el aprendizaje de la tercera lengua. Estos estudios, que tienen validez ecológica al haber realizado la recogida de datos en el contexto de aprendizaje, fueron el germen de dos grupos de investigación del sistema universitario vasco. Además, en el contexto de prestar más atención a las diferencias entre el aprendizaje de segundas y terceras lenguas y gracias a la colaboración internacional, fundamos la International Association of Multilingualism cuyo último congreso tuvo lugar en Viena el pasado año. Hoy en día, la investigación realizada en el País Vasco está muy presente en estos congresos y en otros así como en publicaciones científicas de impacto a nivel internacional.

Esta línea de investigación demuestra que el bilingüismo contribuye de forma positiva al aprendizaje de terceras lenguas y esta ventaja se asocia con un mayor desarrollo de la conciencia metalingüística y con la experiencia adquirida en el aprendizaje y uso de lenguas por parte del alumnado bilingüe.

Una vez que he resumido brevemente la investigación realizada en una primera fase vamos a pasar a la investigación que realizamos en la actualidad. Esta investigación está relacionada con las características del multilingüismo hoy en día y con la situación en nuestra comunidad donde el euskara es la principal lengua vehicular en educación y el inglés ha adquirido una gran importancia.

Ahora que el bilingüismo euskara-castellano está mucho más extendido en nuestro sistema educativo que hace 20 o 25 años y hemos pasado del bilingüismo al multilingüismo, ¿podemos conseguir que el

alumnado se beneficie más de su bilingüismo aprovechando su ventaja inicial como bilingüe? Este es nuestro objetivo.

Para ello en vez de considerar a las lenguas del sistema educativo como árboles aislados e independientes podríamos pensar en la imagen del baniano o higuera de Bengala (Bayan tree) como un solo árbol más complejo y en el que se relacionan las lenguas.

El punto de partida de esta reflexión se encuentra en nuestra realidad educativa al observar la metodología utilizada en los centros escolares de nuestra comunidad. Veamos como ejemplo una ficha que el alumnado de Educación Secundaria suele recibir en las clases de francés que es una asignatura optativa y cuarta lengua en nuestras escuelas. Al aprender el Passé composé (preterito perfecto) nos podemos encontrar reglas como estas:

Le passé composé avec "être"

Les verbes intransitifs prennent l'auxiliaire "être" au passé composé. On dit aussi les verbe de mouvement.

Le passé composé avec "avoir"

Les verbes transitifs donc les verbes qui ont un complément direct forment le passé composé avec "avoir".

Je suis arrivée à la maison
J'ai mangé une pomme

Etxera iritsi naiz
Sagar bat jan dut

He de confesar que siendo filóloga de formación disfruto con estas reglas gramaticales pero me puedo imaginar que muchos adolescentes las encuentran áridas. ¿No sería más fácil decir al alumnado que pueden utilizar su conocimiento del euskara? "Être" cuando ponemos "izan", "avoir" cuando ponemos "ukan". Salvo algunas excepciones funciona perfectamente. Sin embargo, la práctica de aislar lenguas e ignorar los recursos del alumnado está muy extendida aunque su eficacia no ha sido demostrada científicamente.

Este tipo de observaciones y el análisis de propuestas teóricas y estudios empíricos realizados en otros contextos nos han llevado a formular el "Enfoque Multilingüe" Focus on Multilingualism (Cenoz & Gorter, 2011, 2015). Es un enfoque holístico para la enseñanza y la investigación en el contexto de la educación multilingüe que tiene tres dimensiones: el hablante multilingüe, el repertorio lingüístico total y el contexto social. A diferencia del hablante monolingüe, el hablante multilingüe (o multilingüe emergente) utiliza elementos lingüísticos de su repertorio y, dependiendo de sus interlocutores y las necesidades comunicativas del contexto social en el que se encuentra, utilizará solamente

elementos de una lengua o de varias. Además, teniendo en cuenta que el multilingüismo es dinámico, el hablante multilingüe puede utilizar las lenguas de su repertorio lingüístico de distinta forma a lo largo de la vida.

El enfoque multilingüe Focus on Multilingualism supone considerar que las lenguas pueden reforzarse entre sí para fomentar el aprendizaje. La idea no es que el hablante monolingüe ideal de cada una de las lenguas sea la referencia sino el hablante multilingüe real que se comunica separando o relacionando las lenguas de su repertorio dependiendo del contexto social.

En los estudios de multilingüismo hoy en día se puede hablar de un giro multilingüe que incluye Focus on Multilingualism y que como dice Claire Kramsch catedrática de la University of California, Berkeley citando nuestro trabajo en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea:

[This is revolutionary, as it puts into question the whole monolingual foundation of theoretical and applied linguistics.](#)

Las consecuencias didácticas de este enfoque son muy importantes para el sistema educativo. Podemos poner un ejemplo de producción escrita. En uno de nuestros estudios, publicado en la revista americana Modern Language Journal en el 2011 pedimos a 165 alumnas y alumnos de Educación Secundaria que escribieran en distintas fechas un texto en euskara, otro texto en castellano y otro en inglés basados en distintas imágenes.

Observamos con claridad que estas redacciones compartían muchos aspectos en cuanto a la organización del texto y el contenido. Cuando una alumna o alumno realizaba la descripción incluyendo una introducción y conclusión hacía lo mismo en las tres lenguas. Cuando un alumno o alumna utilizaba muchos términos de colores en una descripción también lo hacía en las otras dos lenguas.

El potencial didáctico de estos resultados es enorme. Si en vez enseñar las lenguas de forma paralela sin relacionarlas, si en vez de considerar los hilos paralelos, la urdimbre, irazkia, warp, chaîne empezamos a tejer añadiendo la trama, bilbea, weft, trame podremos conseguir que nuestro alumnado se beneficie de su propio repertorio multilingüe.

Translanguaging is a very useful concept that has gained currency in the last years. The original concept comes from bilingual schools in Wales. Ofelia García, professor at the Graduate Center of the City University of New York and Li Wei professor at University College London explain that by translanguaging

The entire linguistic repertoire of bilingual children is used flexibly and strategically in instruction in order to engage the children cognitively, academically, emotionally and creatively (2014: 126)

As I have already said our aim is to encourage multilingual students to use their resources so as to improve the learning of different languages. How can we do it through translanguaging and Focus on multilingualism?

The key idea to answer that question comes from a sentence attributed to the physicist and Nobel Prize winner, Albert Einstein

The value of education is not the learning of facts, but the training of minds to think (1921)

This is exactly what we work on, the training of students' minds to develop metalinguistic awareness so that they find out how languages work and which resources they can use when learning and using languages. The idea is to use translanguaging when teaching so that students have the whole multilingual repertoire at their disposal instead of telling them to "forget" about the other languages and behave as if they were monolinguals.

Our research work is based on pedagogical interventions carried out in schools and on teacher education courses focusing on multilingualism. Translanguaging materials include planned and sequenced activities that combine two or three languages and highlight similarities and differences between them. Let's look at a couple of examples

Example 1. Linguistic landscape and compounds. Students are shown some pictures of the linguistic landscape or take their own pictures and discuss the languages that are found in the language signs in their town. In order to develop metalinguistic awareness they analyze these signs and compare them in the three languages. These pictures show the Basque word "liburudenda" which can be compared to the English "bookshop" but is different from the Spanish "librería". Students have to add the names of shops in different languages such as loredenda-flowershop-floristería so as to be aware of the similarities and differences between languages.



CASTELLANO	EUSKARA	INGLÉS
video club	lorudenda tateka liburudenda	flower shop bookshop coffee shop


Example 2. Science and cognates. In this example students are learning science through the medium of English and they have to identify in the English text the words that have cognates in Spanish, Basque or both.

The **ocean** holds more than 97% of the water on Earth. Through its role in the water and **carbon cycles**, the **ocean** is a **major contributor** to many of Earth's **processes**—and it hosts some of our planet's most **diverse ecosystems**.

ENGLISH	SPANISH	BASQUE
<u>Ocean</u>	Océano	<u>Ozeano</u>

The idea is that students reflect about vocabulary in the three languages but we also use pedagogical translanguaging for other areas. These activities that go across languages allow students to use their whole linguistic repertoire. They add the weft to the warp.

We are already getting some significant results on some tests of metalinguistic awareness when the experimental and control groups are compared.



We also have some positive feedback from students:

Guk pentsatzen dugu hiru hizkuntzak guztiz desberdinak direla baina aztertzen dugunean apurtxo bat gehiago ikusten dugu direla antzekoak.

Batez ere ingelesez ikasi ditut hitz gehiago beste hizkuntzekin daukatela zerikusia

And teachers:

Ulermenean, hitz sustraikideak eurentzat izan dira deskubrimendu bat ... eta gero, eratorrien eta konposatuen arteko hori hiru hizkuntzetan zelan jokatzeko duten ere. Ikusten duzu aurrera doazela eta hobeto doazela.

Research on Focus on Multilingualism and Translanguaging conducted at the University of the Basque Country is having important international impact at a time when a paradigm change is taking place in the study of multilingualism in education.

Hitzaldi honen hasieran, eleaniztasunaz hausnartu dut oso historia luzea duen eta gaur egun ezaugarri espezifikoak dituen fenomeno gisa. Ondoren, duela zenbait urte egin genuen eta orain egiten ari garen lana laburbildu dut. Eta etorkizunari buruz, zer esan? Lehen bezala orain, hizkuntzak irakasten jarraitzeko beharra sentitzen dugu, baina gaur egun aurrerapen teknologikoek berebiziko eragina dute eleaniztasunaren eta hezkuntzaren inguruko ikerketan eta beste hainbat esparrutan.

Etorkizunean hizkuntzak irakasteko beharra izango al dugu? Itzulpen automatikoa aurrerabide handia egiten ari da, gainean daramatzagun gailuetako teknologia ere gure artean dugu, eta badirudi etorkizunean izugarritzko garapena izan lezakeela. Hala izanez gero, bilakaera horrek egundoko eragina izan dezake hizkuntzen irakaskuntzan eta eleaniztasunaren inguruko ikerketan. Gipuzkoako enpresa bateko zuzendariari behin entzun nion bezala: "Nik nahiko nukeena da Txina edo Japoniara joaten naizenean euskaraz hitz egin ahal izatea eta teknologiari esker haiek nik esaten dudana ulertzea". Laster gertatuko al da hori? Eta hala bada, etorkizunean ikasleek hizkuntzak ikasiko al dituzte?

Zaila da teknologia berriek euskararen erabileran eta ikaskuntzan izango duten eragina aurreikustea. Hala ere, garrantzitsua da aintzat hartzea akaso posible dela kode bat itzultzea, baina ez pertsona eleaniztun batek komunikatzeko erabiltzen dituen baliabide guztiak. Itzulpen automatikoa ikuspegi elebarkarrean oinarritzen da, baina guk oraindik hizkuntza eta kultura bat baino gehiago behar ditugu komunikatu ahal izateko.

Hizkera eleaniztunaren oinarria hiztun eleaniztunak dituen baliabideak dira: keinuak, intonazioa, kulturarteko gaitasuna eta beste hizkuntza batzuetatik hartutako baliabideak, besteak beste. Jardun kreatibo eta erreala da, makinaren hizkeraz oso bestelakoa.

Har ditzagun, adibidez, negozioen munduan egiten diren nazioarteko bilerak. Elkar ezagutu bezain laster korear batek euskaldun bati zenbat urte dituen galdetzen badio, harrigarria gerta dakioko euskaldunari, baina Korean beharrezkoa da informazio hori, hitz egiterakoan zer errespetu-maila erabili behar den jakiteko. Loiuko aireportuko taberna batean euskal enpresaburu bat ikusi nuen Britainia Handiko gizon batzuei hau esaten: *"Sit down sit down, what do you want to drink?"*. Eta ikusi nuen britainiarrak nolabait asaldu egin zirela, ez daudelako zuzeneko hizkera horretara ohituta eta akaso ez zirelako ohartu euskalduna anfitrioi atsegina izaten saiatzen ari zela.

Kontzientzia-hartzean oinarritutako planteamendu eleaniztun eta kulturantzun bat lagungarria izan daiteke gaizki ulertuak saihesteko eta, bidez batez, negozio hobekak egiteko.

Etorkizunean gero eta arreta handiagoa jarri beharko diogu kulturarteko komunikazioari. Baina horretarako hizkuntzetan zehar ibili behar gara, urdambre, warp, chaîne, irazkia-ri trama, weft, trame, bilbea gehituz.

Koldo Mitxelena esan zuen moduan:

"Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako".

Konklusio gisa esan nahi dut hezkuntzaren arloko eleaniztasunari buruzko ikerketa garrantzitsua eta dinamikoa dela gure unibertsitatean. GARRANTZITSUA da, eragin zientifikoa eta errekonozimendua dituelako nazioartean. Gainera, gizartean ere eragina du, hezkuntza-sistemaren hobekuntza eta lan-munduan sartzen diren profesionalen prestakuntza bultzatzen dituen neurrian. Egiten ari garen ikerketa DINAMIKOA ere bada, bilakatuz joan delako eta gaur egungo eleaniztasunaren ezaugarri berrietara egokitu delako. Dinamikoa da, bestalde, ideia berriak sortu eta gure errealitatera egokitzeaz gain, maila zientifikoan eta sozialean eleaniztasunaren ikerketan sakonduz jarraituko duten ikertzaile gazteak ditugulako gure lantaldean.

Bilbea irazkiarekin gurutzatuz aurrera egin dugu urte hauetan, baina oraindik asko dago egiteko.

2017-2018 ikasturtearen irekitze-hitzaldi hau amaitzera noa, gure unibertsitateko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean egiten dugun lana ezagutzera ematen lagundu dudan esperantzaz.

Eskerrik asko zuen arretagatik!

CURRICULUM VITAE

Jasone Cenoz es catedrática de Métodos de Investigación y Diagnóstico en Educación en la Facultad de Educación, Filosofía y Antropología de la Universidad del País Vasco, UPV/EHU. Su investigación se centra en la educación multilingüe y la adquisición de segundas y terceras lenguas. Ha participado en proyectos de investigación europeos y nacionales. Ha publicado un gran número de artículos y varios libros sobre estos temas y ha presentado los resultados de su investigación en numerosos congresos internacionales. Además de impartir conferencias invitadas y cursos en un gran número de universidades europeas también lo ha hecho en universidades norteamericanas (Columbia, Graduate Centre CUNY, Univ of Philadelphia, Temple University, Penn State University, McGill University, Concordia University, University of British Columbia, Simon Fraser University, Université de Quebec), asiáticas (Hong Kong University, Chinese University of Hong Kong, Brunei University, Singapore University, HK Institute of Education), Australia (University of Melbourne, Univ of Southern Australia). En el 2011 obtuvo el Premio de Investigación de la Asociación Española de Lingüística Española.

jasone.cenoz@ehu.eus